

## **"GABINO ALUSTIZA" AIAKO HISTORIA, ONDARE ETA KULTURARI BURUZKO IKERKETA BEKA. 1. EDIZIOA.**

### **Ikerketa-beka arautzen duten deialdiaren oinarriak.**

Aiako Udalak **"GABINO ALUSTIZA"** AIAKO HISTORIA, ONDARE ETA KULTURARI BURUZKO ikerketa bekaren lehendabiziko edizioa deitu du, Aiako historiari eta kulturari buruzko atal ezezagun edo gutxi ikertuan argitara emateko edo datu jakinetan sakontzeko.

Edozein herrirentzako ezinbestekoa da beraren historia ezagutu eta ezagutaraztea, gizarte baten oraina ulertzeko eta etorkizuna eraikitzen hasteko, nondik abiatzen garen jakiteak oinarri finkoak ematen bait ditu. Egungo aiarrak ere historia horren nondik-norakoa bereganatzea garrantzi handikoa da.

Horregatik guztiagatik, Aiako historia, geografia, ondarea, natura, artea eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko edota politikoan egin diren ekarpenak berreskuratzea eta ezagutzera ematea nahi du Aiako Udalak.

Beka honek "Gabino Alustiza" izena darama, II. Errepublikan Aiako alkate izandakoaren omenez.

#### **1.- XEDEA**

1.1.- Lanaren helburua Aiaren historia, kultura eta ondareari buruzko edozein gai, arlo edota aldi historikoa jorratuko duen ikerketa bat burutzea izango da. Hala ere, deialdi honetarako gai hauetako bat jorratzen duten ikerketa proiektuei lehentasuna emango zaio:

##### **a) Udaletxeak proposatutako gaiak**

- Aiaren Sorrera eta bere heraldikaren azalpena inguruko ikerketa historikoa
- Jose Joaquin Arrillaga Embil Kaliforniako Gobernadorea izandako aiarraren Biografia
- Joan Fermin Gilisagasti ainguragilearen inguruko bibliografia eta aiarekin izan zuen lotura estua azaltzea
- Altxerriko labarretako artearen inguruko ikerketa.
- Agorregiko Burdinola eta erroten historiaren ikerketa.
- Aiako basoaren uztiaketa eta kudeaketak, ekarritako Paisai "natural" eta jarduera ekonomikoak historian zehar.
- Aiako elizen inguruko ikerketa.

##### **b) Lehendabiziko edizioa izanda, ikerlariak proposatutako gai libreak onartuko dira.**

Horiez gain, proposamenek ere gai hauen inguruan ez doazen gaiak proposatzea ere posible da.

Edonola ere, aurkeztuko diren proposamenek Aiaren historiari, ondarearen ezagutzari ta kulturari eginiko ekarpenak edo udalerrri honen errealitate geografiko, artistiko, kultural, sozial, ekonomiko edo politikoak erakutsi behar dituzte.

## 2.- ONURADUNAK

2.1.- Beka norbanakoek edo taldeek eska dezakete. Bigarren kasu honetan, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak osatzen direnean, ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko du taldeak, 2.2. artikuluan eskatzen den baldintza betetzen dutenen artean.

2.2.- Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa izango da goi-mailako tituluduna izatea (Unibertsitateko lizentziatua edo gradua, gutxienez). Taldeen kasuan, gutxienez taldekide batek bete beharko du baldintza hau.

2.3.- Beka jaso ahal izateko, onuradunak zerga obligazioak egunean eduki behar ditu, eta hala frogatu beharko du dagokion ziurtagiria aurkeztuz.

## 3.- BEKAREN BALDINTZAK.

3.1.- Deialdi honetarako diru kopurua HAMABOST MILA EURO dira (15.000€). Ikerketan zehar sor daitezkeen gastu guztiak ikerketa bekaren onuradunaren kontura izango dira.

3.2.- Onuradunak Euskal Herriko lurralde batean ofiziala den hizkuntz batean, edota mundu zientifikoan onartzen diren beste edozein hizkuntzatzen (batez ere ingelesa) ere burutu dezake lana.

3.3.- Bekaren iraupena hamabi (12) hilabetetako izango da, beka esleitzen den egunetik hasita. Bekaren esleipen-data 2025ko urtarrilaren 1a izango da. Beste hiru hilabetez luza daiteke, onuradunak hala eskatuta eta epaimahaiak hala irizten badio. Epea bukatzean onuradunak lanaren bi kopia (bat paperetan eta beste bat euskarri informatikoan) prozedura administratiboz aurkeztu beharko ditu.

3.4.-Lanak derrigorrez orijinalak eta aurretik argitaratu gabeak izango dira.

3.5.- Hasierako sei (6) hilabeteak pasa eta gero, onuradunak egindako lanari buruzko txosten bat bidali beharko dio Udalari, egindako lana zehaztuz eta, bere kasuan, azkenengo helburuetan aldaketa bat proposatu ahal izateko, ikerketa-prozeduaren ibilbideak hala eskatuta.

3.6.- Beka ondoren zehazten den moduan ordainduko zaio onuradunari:

- a) Beka onartzerakoan, guztiaren %25a.
- b) 6 hilabete pasa ondoren, txostena aurkeztu eta epaimahaiak onartua izan eta gero, guztiaren %25a.
- c) Lana aurkeztu ondoren, epaimahaiak lanari oneritzia eman eta gero, guztiaren %50a.

#### 4.- EPAIMAHAIA

4.1.- Aiako Udalak, Euskal Herriko Unibertsitateko "Euskal Herria, Europa eta Amerika" ikerketa taldearekin batera, hiru adituz osatutako epaimahai bat izendatuko du. Hauekin batera udalak epaimahaiaren ordezkari bat jarri ahalko du, ahotsarekin baina botorik gabe, idazkariaren papera egiteko. Epaimahai honek:

a) Aurkeztuko diren proiektuak aztertu, ebaluatu eta beka esleitzeko proposamen bat luzatuko dio Udalari. Bertan beka esleitzeko hobesten den onuraduna eta gutxienez ordezko bat izendatu behar ditu. Epaimahaikideen eritziz proiektuek ez badute kalitate nahikoririk erakusten, izendapena hutsik utzi ahalko du eta beka eman gabe geratuko da.

b) Beka eman eta 6 hilabetetara onuradunak aurkeztu beharreko txostena aztertu eta, hala erabakiz gero, onartu edo ez onartu.

c) Lana aurkeztu eta gero, lana ikuskatu eta, hala erabakiz gero, onartu edo ez. Aldaketaren bat proposatuko balute, onuradunari jakinarazi eta honek hiru hilabetetako epea izango zuen, dagozkion zuzenketak burutzeko.

4.2.- Epaimahaiak, beka esleitzeko unean, erizpide hauek hartuko ditu kontutan:

a) Ikerketa proiektuaren interesa eta zuzentasuna, orijinaltasuna eta bidegarritasuna (%80).

b) Eskatzaile(ar)en kurrikuluma eta, bere kasuan, espediente akademikoa (%20).

4.3- Epaimahaiak hartutako erabakiak apelaezina izango dira. Erabakia udaleko web gunean eta ohar taulan argitaratuko dira. Horrez gain, proposatutako onuradunarekin zuzenean harremanetan jarriko da, onartzeko prozedurari ekiteko.

4.4- Deialdu honetan parte hartzeak oinarri hauetan jasotakoa eta epaimahaiaren erabakian onartzen direla esan nahi du.

#### 5.- AURKEZPEN EPEA ETA PROZEDURA.

5.1.- Bekarako proiektua eta aurkeztu beharreko gainontzeko dokumentuak, 5.4 atalean adierazten den moduan, Aiako udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira, prozedura administratiboaren legeak ezarritako eran.

5.2. Beka eskatzeko dokumentazioa deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ofizialki argitaratu eta berehala aurkeztu ahal izango da. Dokumentazio hau emateko epea 2024eko abenduaren 12an bukatuko da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, hiru laneguneko epea emango zaio interesdunari akatsak zuzendu edota dagokion dokumentazioa gehitzeko. Hala ez badu egiten, bere eskaera bertan behera uzten duela ulertuko da.

5.3. Bekaren onuraduna proposatzerakoan, beka emateko ebazpena egin aurretik, aurkeztu beharko dira kurrikulumean zehaztutako ikasketak frogatzeko balio diren egiaztapenak.

5.4. Interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a) Izenemate eskabidea. Bertan, ikerketa bekaren deialdi honetan parte hartu nahi duela adieraziz gain, izena, helbidea, harremanetarako telefono zenbakiak, posta elektronikoa eta helbidea azaldu beharko dira, proiektuaren izenburuarekin batera.

b) Ikerketa proiektuaren proposamena (gehienez 20 orri), honako elementu hauek gutxienez izango dituena: izenburua, helburuak, aukeratutako gaiaren justifikazioa, metodologia, informazioa eskuratzeko iturriak eta aurreikusitako emaitzak.

c) Eskatzaile(ar)en kurrikuluma(k), egindako ikasketa eta ikerketak zehaztuta.

d) Eskatzaile(ar)en unibertsitate titulu(ar)en eta espediente akademiko(ar)en kopia.

d) Zerga obligazioak egunean dituela frogatzen duen egiaztatagiria.

## 6.- ARGITARAPENA ETA JABETZA INTELEKTUALA.

6.1.- Beka honekin egindako ikerketa lanaren jabetza intelektualeko eskubideak egileen esku geratuko dira.

6.2.- Beka hau onartzearekin, onuradunak egindako lana argitaratzeko eskubide eksklusiboa ematen dio Aiako udalari, hiru urteren buruan lanaren lehendabiziko edizio bat atera ahal izateko. Edizio hau paperetan eta euskarri informatikoan egin ahal izango da. Aiako udalak euskarri informatikoan eginiko bertsioa bere webgunean publikoki zabaltzeko eskubidea izango du.

6.3.- Hiru urte hauek pasa ondoren Aiako udalak ez badu lana argitaratu, argitaratzeko eskubideak berriro egileari itzuliko zaizkio. Bigarren eta gainontzeko edizioak egiteko, udalak egilearen baimena eta adostasuna eskatu beharko du.

6.4.- Lana aipatutako epean argitaratzen bada, onuradunak aurkezpen publikorako antolatutako ekitaldietan parte hartu beharko du, eta baita, hala eskatuz gero, prentsarekiko harremanetan ere parte hartu beharko du.

7.- Hemen azaltzen ez diren beste edozein gauzetarako azken erabakia Aiako udalak izango du.